



ZINEUSKADI 2025

“Fikziozko eta animaziozko zinemarako film luzeak eta laburrak eta sorkuntzako dokumentalak sustatzeko eta publizitatea egiteko laguntzen deialdia Goya, Oscar eta European Film Awards sarien kanpainetarako”



ZINEUSKADI irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, eta, bazkideen artean, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Euskadiko ekoizleen bi elkarteak ([EPE-IBAIA](#) eta [APIKA](#)), [Euskal Irrati Telebista](#) (EITB), [Donostia Zinemaldia](#), [Euskal Filmategia Fundazioa](#) eta EZAE ditu.

Haren eginkizun nagusia da euskal ikus-entzunezkoen sektorea estrategikoki bultzatzea eta, ildo horretan, sektore hori osatzen duten enpresei eta profesionalei laguntzea, Estatuan, Europan eta nazioartean garatzeko eta zabaltzeko aukera erraztearren.

Euskadiko ikus-entzunezkoen sektore propioa garrantzi handia hartzen ari dela eta garapen horri esker euskal ekoizpen-etxeak nazioarteko sari nagusietan lehiatzeko aukera izaten ari direla kontuan hartuta, ZINEUSKADIK beste laguntza-deialdi bat sustatu nahi du, egoitza Euskadin duten ekoizpen-etxeen proiektuen Goya, Oscar edo European Film Awards sarietarako hautagaitzak babestera bideratua.

Azken helburua da ikus-entzunezkoen sektorea kulturaren ikuspegitik eta nazioartean ospea lortuz indartzea eta sendotzen laguntzea.

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea eta aurrekontua

1.- Deialdi honen xedea da egoitza Euskadin duten ekoizpen-etxeek egin dituzten, Euskadin 2025eko urtarrilaren 1etik 31ra bitarte estreinatu diren eta Goya, Oscar edo European Film Awards sarietarako izendapena lortzeko lehiatzen diren fikziozko eta animaziozko zinemarako film luze edo laburren eta sorkuntza-dokumentalen sustapenerako eta publizitaterako laguntzak emateko oinarriak ezartzea.

2.- Zinemarako film luzetat hartuko da zinema-aretoetan ustiatzera bideratuta dagoen hirurogei minutu edo gehiagoko ikus-entzunezko obra.

3.- Zinemarako film laburtzat hartuko da zinema-aretoetan ustiatzera bideratuta dagoen hirurogei minutu baino gutxiagoko ikus-entzunezko obra.

4.- Deialdi honetan laguntzetara bideratutako zenbateko orokorra 21.000 euro da.

2. artikulua. - Laguntza-modalitateak

1.- Laguntza-modalitateak honako hauek dira:

- a) Goya sarietarako laguntzak
- b) Oscar edo European Film Awards sarietarako laguntzak



2.- Berariaz baztertuta geratuko dira, bi laguntza-modalitateetan, honako ikus-entzunezko proiektu hauek:

- a) Ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzuak ematen dituzten enpresek zuzenean produzitutakoak.
- b) "X" gisa kalifikatutako filmak, Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legearen 9.2 artikuluari jarraikiz.
- c) Jabetza intelektualaren eskubideen lagapenari buruzko araudia edo lan-baldintzei buruzko araudia eta/edo hitzarmen sektorialak urratzen dituztenak edo errespetatzen ez dituztenak.

3. artikulua.- Entitate onuradunak

1.- Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide batean kokatutako pertsona juridiko pribatu independenteek jaso ahal izango dituzte laguntzak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan establezimendu iraunkor bat badute eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Kultura eta Kirol Ministerioko Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuko (ICAA) Zinematografiako eta Ikus-entzunezkoen Enpresen Administrazio Erregistroan ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxe independente gisa inskribatuta egotea.
- b) Ekoizpenean titulartasunaren gutxienez % 20 egiaztatzea.
- c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izatea, baita dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharren ordainketak ere.

2.- Pertsona juridiko pribatu independentetzat hartuko da ikus-entzunezko komunikazio-/hedapen-zerbitzuen hornitzaile baten edo telebista-kanal pribatu baten titular baten eragin menderatzailearen xede ez den eta, bestalde, eragin menderatzailearik ez duen entitatea (jabetzari eta finantza-partaidetzari lotutako arrazoiengatik edota kasuan kasuko administrazio- edo kudeaketa-organoen erabakiak nolabait ere baldintzatzeko ahalmena izateagatik, kasuetako edozeinetan).

3.- Pertsona batek establezimendu iraunkor batekin jarduten duen zehazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 21.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Gainera, onuradunak Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide batean dituen gainerako establezimenduetatik bereizteko moduko jarduera eta kudeaketa bereizia izan beharko ditu EAEko establezimendu iraunkor horrek.

4.- Berariaz baztertuta geratuko dira, bi modalitateetan, honako entitate hauek:

- a) Zigor- eta administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta daudenak, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, sexu-diskriminazioagatiko debekuak barnean hartuta, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoari jarraikiz, baita Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako inguruabarretako edozeinen ondoriozko debekuak ere.



- b) Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1 artikulua h) puntuari jarraikiz, ebazpen irmo bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso duten pertsona juridikoak, lege horren edo hori ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarrita dutenak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.
- c) Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGBTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua betetzen ez duten entitateak.
- d) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren berreskuratzeko agindu bat betetzeko duten entitateak, eta krisian dauden enpresak, krisian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-dirulaguntzei buruzko zuzentarauen definizioari jarraikiz (EO C249, 2014-07-03).

4. artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan xedatutakoari eta modalitate bakoitzean ezarritakoari jarraituko zaie.

5. artikulua.- Eskaeren aurkezpena

1.- Eskaerak aurkezteko epea proiektua aurkezten den modalitatearen arabera izango da.

2.- Deialdi honi lotutako izapide guztiak eskatu, kontsultatu eta egiteko, pertsona juridikoek info@zineuskadi.eu helbide elektronikoa erabiliko dute edo honako helbide honetara idatzi beharko dute:

ZINEUSKADI elkarte
TABAKALERA eraikina (3. solairua)
Andre zigarrogileen plaza, 1
20012 Donostia

3.- Entitate eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera, erantsitako dokumentazioarekin batera. Era berean, prozeduran zehar, pertsona edo entitate eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek ezartzen duten bezala.

4.- Eskaerak aurkezteak deialdi honetako oinarriak zehazten dituzten baldintzak berariaz eta formalki onartzea dakar.



6. artikulua.- Laguntzen kudeaketa

Laguntzen kudeaketa ZINEUSKADI elkarteari dagokio.

7. artikulua.- Eskatutako dokumentazioa

Laguntza-eskaerari ondorengo dokumentazioa erantsi beharko zaio:

1.– Pertsona edo entitate eskatzaileari buruzko dokumentazioa:

- a) Ordezkararen identitate-datuak.
- b) Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekikoen betetzea.
- c) Erakunde ekoizlearen IFK, EAEn finkatuta dagoela egiaztatzen duena.
- d) Koprodukzio-kontratua edo entitate eskatzaileak filmaren titulartasunaren gutxienez % 20 izatearen frogua.
- e) Entitate eskatzailea Ekonomia Intereseko Talde bat bada, talde hori osatzen duten entitateak zehazten dituen adierazpena eta produkzio-prozesuaren ezein unetan taldea osatzen duten ekoizpen-etxe ez-independentetek zuzenean edo zeharka kapital sozialaren % 20 baino gehiago izango ez dutelako konpromisoa.

2.– Proiektuari buruzko dokumentazioa:

- a) Proiektu bererako eskatutako eta lortutako laguntzen eta haien zenbatekoaren adierazpena
- b) Excel dokumentua laguntzak jasotzeko aurkeztutako gastuen aurrekontuarekin.

3.- Era berean, modalitate bakoitzean jasotako dokumentazio espezifikoak aurkeztu beharko da.

8. artikulua.- Aurkeztutako eskaeran dauden akatsen zuzenketa

Laguntza-eskaera behar bezala osorik betetzen ez bada, ZINEUSKADI elkarteko zerbitzu teknikoek ikusitako akatsak zuzentzeko eskatuko diote eskatzaileari. Errekerimendu hori entitate eskatzaileak jakinarazpenetarako emandako helbide elektronikora igorriko da. Helbide horrek operatibo egon beharko du prozesu osoan. Eskatutako zuzenketa 10 eguneko epean egiten ez bada, proiektua aurkezteari uko egin zaiola ulertuko da.

9. artikulua.– Emakida-prozedura.

1.– Deialdi hau Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.3 artikuluan aurreikusitako ondoz ondoko emakidako prozeduraren bidez ebatziko da 2. artikuluan jasotako modalitate bakoitzean.

2.– Modalitate bakoitzerako ezarritako mugak kontuan hartuta, deialdi honetan aurkeztutako irizpideak betetzen dituzten proiektuei dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa emango zaie,



aurkezpen-ordenaren arabera eta dagokion modalitaterako bideratutako diru-esleipena agortu arte.

3.- Proiektuen arteko lehentasuna ezartzeko, aurkezpen-data proiektuaren aurkezpen-data izango da, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 20.2 artikuluan jasotakoari jarraikiz.

4.- Proposamenik ez dagoelako edo proposamenek ezarritako baldintzak betetzen ez dituztelako zuzkidura agortzen ez bada, sobera geratzen den zenbatekoa beste modalitate edo azpimodalitate batzuetan zenbatekoa agortu delako dirulaguntzarik jaso ezin izan duten proiektuak finantzatzera bideratuko da.

5.- Laguntza-deialdi honetan, eskatzaileko 2 proiektuk jaso ahal izango dute dirulaguntza gehienez.

10. artikulua.- Emakida-erabakia

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, ZINEUSKADI elkarteko taldeak laguntzen emakidari buruzko txostena eta proposamena igorriko dio ZINEUSKADI elkarteko Zuzendaritza Batzordeari, ondoren elkarteko lehendakariak laguntzak emateko erabakia eman dezan.

11. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

1.- Ebazpena modalitate eta/edo azpimodalitate bakoitzean eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 3 hilabeteko epean argitaratuko da gehienez.

2.- Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie onuradunei posta elektronikoko bidez, eta ZINEUSKADI elkartearen webgunean argitaratuko da.

12. artikulua.- Bateragarritasuna

1.- Deialdi honetan emandako laguntzak bateragarriak izango dira beste entitate batzuek xede berarekin emandako beste edozein laguntzarekin, betiere diruz lagundutako jarduerak gainfinantzaketarik ez badu. Hori gertatuz gero, laguntzaren zenbatekoa dagokion mugaraino murriztuko da.

2.- Aurrekoari jarraikiz, deialdi honetako laguntzak jasotzen dituztenek xede berarekin jasotako beste laguntza ororen berri eman beharko diote ZINEUSKADIRI, baita laguntza deialdi honen ondoren ematen bada ere.

13. artikulua.- Laguntzaren ordainketa

Ordainketa bakarra egingo da, entitate onuradunen izenean. Laguntzaren ordainketa onuradunak laguntza onartu ondoren izapidetuko da.



14. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan araututako laguntzen onuradun diren entitateek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Emandako laguntza onartzea. Ildo horretan, laguntzaren emakidaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek laguntzari berariaz uko egiten ez badiote, laguntza onartu dela ulertuko da.
- b) Laguntza zertarako eman den, xede horretarako erabiltzea.
- c) Zineuskadiri laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko funtzioak betetzean eskatzen dien informazio guztia ematea.
- d) Diruz lagundutako proiektua deialdian aurkeztutako baldintzetan egikaritzea.
- e) Zineuskadiri Estatuko edo nazioarteko edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatutatik xede bererako beste laguntza edo dirulaguntza batzuk lortu izanaren berri ematea.
- f) Informazio, publizitate, sustapen eta promoziorako ikus-entzunezkoen hasierako kredituen titulu guztietan eta edozein zabalkunde-modutan, Basque.Audiovisual-en laguntzarekin egin direla berariaz eta garbi ikusteko moduan jasotzea. Horretarako, Zineuskadiren webgunean eskuragarri dagoen Basque.Audiovisual-en gortina sartuko da.
- g) Zineuskadiri akademikoei bidalitako gonbidapenen ale bat ematea.
- h) Enpresa-deslokalizaziorik ez egitea, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluari jarraikiz.
- i) Agindu honetan laguntza-modalitate bakoitzerako ezartzen direnak.
- j) Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezarritako gainerakoak.

15. artikulua.- Ez-betetzeak

Ez-betetzearen kasuak izango dira honako hauek:

- a) Dirulaguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak faltsututa edo lorpena eragotziko zuketena ezkutatuta.
- b) Jasotako laguntzak deialdi honetan aurreikusitakoez bestelako jardueretarako erabat edo partzialki aplikatzea.



- c) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, emakida-egintzan ezartzen direnak ez betetzea.
- d) Hala badagokio, laguntzaren likidazio-erabakian adierazten den zenbatekoa ezarritako epean ez itzultzea.
- e) Antzeko laguntzak jaso izanari buruzko informaziorik ez ematea.
- f) Laguntza emateko kontuan hartutako aurrekontuaren % 70etik beherako laguntzaren justifikazioa.
- g) Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.1 artikuluko a, c, d, e eta f letretan jasotako arrazoi oro.

16. artikulua.- Itzultzea

Onuradunak diruz lagundutako proiektua egin dela behar bezala justifikatzen ez badu edo aurreko ataleko kasuren bat betetzen ez badu, emandako laguntza osoa edo zati bat itzultzeko eskatuko zaio, proportzionaltasun-irizpideari jarraikiz.

17. artikulua.– Datu pertsonalak babestearen arloko informazio-klausula (3/2018 Legea, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa).

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira eta "Laguntzak eta dirulaguntzak" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: ZINEUSKADI elkarte

Xedea: Euskal ikus-entzunezkoen sektoreko laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean (20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa).

Eskubideak: ZINEUSKADI Elkarteak datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu. Horretarako, helbide honetara jo behar duzu:

ZINEUSKADI elkarte

TABAKALERA eraikina (3. solairua)

Andre zigarrongileen plaza, 1 20012 Donostia

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen dute fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei



lagatzeko (deialdiaren xedearekin bat datozen xedeetarako), eta baimena ematen diote ZINEUSKADI elkarteari beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla egiaztatzeko.

18. artikulua.- Laguntzen justifikazioa

Gastuak hilabeteko gehieneko epean justifikatuko dira, laguntzei buruzko ebazpena ematen denetik aurrera zenbatzen hasita. Horretarako, bidezko fakturak aurkeztuko dira.

II. KAPITULUA. GOYA SARIAK

19. artikulua.- Laguntzen xedea eta aurrekontua

1.- Modalitate honen xedea da 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta Goya sarietarako izendapena lortzeko lehiatzen diren edo izendapena lortu duten ekoizpen-etxeen fikziozko eta animaziozko zinemarako film luze edo laburren eta sorkuntza-dokumentalen sustapenerako eta publizitaterako laguntzak emateko oinarriak ezartzea.

2.- Horretarako, hiru laguntza-azpimodalitate ezarriko dira:

- a) Lehen azpimodalitatea, izendapenen aurrekoa. Lehen fase honetan, 2026ko Goya sarietarako lehen dauden proiektuak hartuko dira kontuan, inskribatuta daudelako (film luzeen kasuan) edo izendapena lortzeko zerrendan daudelako (film laburren kasuan).
- b) Bigarren azpimodalitatea, izendapenen ondorengoa. Goya sarietarako izendapena izanik Akademian proiektio bat erreserbatuta duten proiektuak hartuko dira kontuan. Fase honetan, honako izendapen hauek hartuko dira kontuan: fikziozko edo animaziozko film luze edo film luze dokumental onena; fikziozko edo animaziozko film labur edo film labur dokumental onena; zuzendaritza onena; emakumezko/gizonezko aktore nagusi onena; emakumezko/gizonezko aktore sekundario onena; emakumezko/gizonezko aktore berri onena; gidoi onena (jatorrizkoa zein egokitua); soinu-banda onena eta abesti onena.
- c) Hirugarren azpimodalitatea (Madrilgo sustapen-ekitaldiari lotutakoa). Izendatuta dauden proiektuak hartuko dira kontuan, eta film laburrek lehentasuna izango dute.

3.- 15.000 euroko aurrekontua bideratuko da, honako azpimodalitate hauetan banatua:

- a) 8.000 euro 2026ko Goya sarietarako lehen azpimodalitatean dauden proiektuen artean.
- b) 3.000 euro 2026ko Goya sarietarako bigarren azpimodalitatean dauden proiektuen artean.
- c) 2.000 euro izendatuta dauden eta Zineuskadik urtarrilean Madrilen antolatutako sustapen-ekitaldian parte hartuko duten proiektuetarako (hirugarren azpimodalitatea).

20. artikulua.- Diruz lagun daitekeen gastua eta laguntzen intentsitatea



1.- 4. artikuluan jasotakoaz gain, gastutzat hartuko dira honako hauek:

- a) Akademian egindako proiektioetako bat. Erreserba aurkeztu beharko da laguntza eskatzeko.
- b) Akademikoei egindako bidalketen gastuak (400 euro gehienez).
- c) Sustapen-ekitaldiari dagokion azpimodalitatean, bidaiaren eta ostatuaren gastuak baino ez dira onartuko.

2.- Onartutako gehieneko gastuak honako hauek izango dira:

- a) 2026ko Goya sarietarako lehen eta/edo bigarren azpimodalitatean dauden fikziozko film luzeen proiektuen kasuan, aurkeztutako gastuaren % 100era bitarteko laguntza emango da, 800 euroko mugarekin azpimodalitate bakoitzean, c) letran jasotakoa salbuetsita.
- b) 2026ko Goya sarietarako lehen eta/edo bigarren azpimodalitatean dauden film luze dokumentalen, animaziozko film luzeen edo film laburren kasuan, aurkeztutako gastuaren % 100era bitarteko laguntza emango da, 700 euroko mugarekin azpimodalitate bakoitzean, c) letran jasotakoa salbuetsita.
- c) Madrilgo sustapen-jarduerara joateko bidaien kasuan, aurkeztutako gastuaren % 100era bitarte lagunduko da diruz, film laburreko 350 euroko eta, film luzeen kasuan, izendapeneko 250 euroko mugarekin.

3.- BEZa ez da gastu gisa onartuko.

21. artikulua.- Eskerak, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

1.- Lehen azpimodalitatean (Goya sarietarako izendapenen aurrekoan):

- a) Eskerak aurkezteko epea **oinarriak argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da, eta Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiaren bozketen lehen txanda argitaratzen den egunean amaituko da.**
- b) Eskerak 5. eta 7. artikuluetan jasotakoaren arabera bidali beharko dira, eta, gainera, honako dokumentazio hau erantsiko da:
 - Akademiako emanaldiaren erreserbaren kopia.
 - Proiektua fase honetan arestian aipatutako oinarrien arabera inskribatu izanaren froga.

2.- Bigarren azpimodalitatean (Goya sarietarako izendapenen ondorengoan):

Eskerak aurkezteko epea **Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiak aurretiazko hautagaitzak iragartzen dituen egunean irekiko da, eta erreserbatutako zenbatekoa agortu arte egongo da irekita.**



c) Eskakerak 5. eta 7. artikuluetan jasotakoaren arabera bidali beharko dira, eta, gainera, honako dokumentazio hau erantsiko da:

- Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiako emanaldiaren erreserbaren kopia.

3.- Hirugarren modalitatean (Madrilgo sustapen-jarduerari lotutakoan):

- a) Eskakerak aurkezteko epea **Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiak behin betiko izendapenak iragartzen dituen egunean irekiko da, eta erreserbatutako zenbatekoa agortu arte egongo da irekita.**
- b) Eskakerak 5. eta [7.](#) artikuluetan jasotakoaren arabera bidali beharko dira.

III. KAPITULUA. OSCAR ETA EUROPEAN FILM AWARDS SARIAK

22. artikulua.- Laguntzen xedea eta aurrekontua

1.- Modalitate honen xedea da 2. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta 2026ko Oscar edo European Film Awards sarietarako proiektu kalifikatu bat duten ekoizpen-etxeen fikziozko eta animaziozko zinemarako film luze edo laburren eta sorkuntza-dokumentalen publizitate-kanpainaren finantzaketarako laguntzak emateko oinarriak ezartzea.

2.- 6.000 euroko aurrekontua bideratuko da guztira.

23. artikulua.- Diruz lagun daitekeen gastua eta laguntzen intentsitatea

1.- 4. artikuluan jasotakoaz gain, gastutzat hartuko dira entitate onuradunak Oscar eta/edo European Film Awards sarietarako kanpainen diseinuan espezializatutako komunikazio- eta publizitate-agentzia bat kontratatzeke egiten dituenak eta/edo egiten den publizitate-gastua. Azken kasu horretan, ezinbesteko baldintza izango da agentzia espezializatu bat izatea.

2.- Zineuskadi elkarteak laguntza teknikoa eskainiko du agentziak bilatzeko, eskaera egiten den unean agentziarik izan ezean.

3.- Aurkeztutako gastuaren % 100era bitarte finantzatuko da, entitate onuraduneko 3.000 euroko mugarekin.

4.- Bidaia-, ostatu- eta/edo ekitaldi-gastuak ez dira inola ere ordainduko.



24. artikulua.- Eskaerak, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

1.- Eskaerak aurkezteko epea oinarriak argitaratu eta hurrengo egunean ireki eta 2025eko abenduaren 24an amaituko da, edota eskuragarri dagoen kreditua agortu arte egongo da irekita.

2.- Eskaerak 5. eta 7. artikuluetan jasotakoaren arabera bidali beharko dira, eta, gainera, honako dokumentazio hau erantsiko da:

- a) Proiektuaren izendapenaren froga, eta, zehazki:
 - o European Film Awards sarietarako lehiatzen diren film luzeen edo film laburren kasuan, nazioarteko banaketa-enpresa edo sales agent batek proiektu hori Award Season izenekora eramateko asmo-gutuna.
 - o Oscar sarietarako lehiatzen diren film laburren kasuan, Hollywoodeko Zinema Akademiak argitaratuko duen short list izenekoan sartzeko aukera emango dion obraren kalifikazioa.
- b) Agentzia bat kontratatuta izanez gero, kanpainaren azalpen-memoria. Bertan, estrategia, kronograma eta bideratutako aurrekontu osoa jasoko dira. Memoria agentziak berak egin beharko du.

Sinadura digitalaren egunean eta lekuan,

ZINEUSKADI Elkarteko lehendakaria
Aitziber Atorrasagasti Calcedo